

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	GALDARAGINTZAKO PRODUKTUAK FABRIKATZEKO ETA MUNTATZEKO MATERIALAK	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0601		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Eraikuntza metalikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Galdaren eta egitura metalikoen diseinua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Galdaragintzako produktuen diseinua	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Galdaragintzako produktuen ezaugarrien zehaztapena	Iraupena	80
	Galdaragintzako produktuak fabrikatzeko eta muntatzeko dokumentazioa	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1145_3ko LB2 lanbide-burutzapenarekin: GALDARAGINTZAKO PRODUKTUAK DISEINATZEA.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Galdaragintzako produktuak fabrikatzeko eta muntatzeko behar diren materialak zehaztea eraikuntza-planoen eta materialen espezifikazioen arabera, kalitate-arauak eta laneko eta ingurunekeo arriskuak prebenitzeko arauak betez.

EI1.1 Galdaragintzako produktuen piezak fabrikatzeko eta muntatzeko materialak —karakterizatuak eta kodetuak— esleitzea.

EI1.2 Prozesuaren faseak, eremuak edo lan-ildoak identifikatzea eta haien ezaugarriak zehaztea, hainbat eraikuntza-estrategiaren arabera.

EI1.3 Materialen hornikuntza-orri bat prestatzea orri tipo batean.

EI1.8 Galdaragintzako produktu baten fabrikazioan, non dokumentu teknikoak entregatzen diren:

- Hainbat prozesu, eremu eta lan-ildotarako material-zerrendak egitea.
- Zerrendako elementu bakoitza definitzea bere erreferentzia, dimentsioa, mota eta materialaren kalitatearen arabera.
- Materialen gainazal-tratamenduak, sekuentziak eta aplikazio-teknikak zehaztea.

Edukiak

1. Galdaragintzan erabiltzen diren materialak.

- o Material-motak: karbono-altzairuak, burdinazko materialak, material ez-burdinazkoak eta burdinurtuak. Saillapena, izendapena, propietateak, manipulazioa eta portaera.
- o Materialen propietateak: fisikoak, kimikoak, mekanikoak eta teknologikoak. Metalen deformazio plastikoaren azterketa.
- o Materialen forma komertzialak: xafra, profil eta hodi normalizatuak. Motak, kalitateak, nomenklatura eta merkaturatze-siglak.
- o Tratamendu termikoak eta gainazal-tratamenduak: arau eta espezifikazio teknikoak, oinarria eta helburua, motak, aplikazioak, prozedurak, kontrolatu beharreko aldagaiak, materialen ezaugarrietan duten eragina.
- o Materialak kodetzea. Akatsak detektatzea eta ebaluatzea. Metalen korrosioa aztertzea.

2. Galdaragintzako fabrikazio- eta muntaketa-prozesuak.

- o Galdaragintzako fabrikazio-prozesuaren faseak.
- o Galdaragintzako muntaketa-prozesuaren faseak.
- o Ekoizpena planifikatzeko teknikak: eremuak, lan-ildoak eta makinak. Haien arteko erlazioa.
- o Materialen hornikuntza-orriak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.

- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Galdaren eta egitura metalikoen diseinua.